



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzea eta behin-behineko merezimenduak argitaratzea (2025AOPE0002)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Udaleko Pertsonala eta barne antolamendua teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:..... 2025AOPE0002

Espedientearen helbidea: OñATI .

Gaia:..... Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzea eta behin-behineko merezimenduak argitaratzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak: 2025eko otsailaren 10ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (26.zk.) Oñatiko Udaleko 2025eko arte udalekuetako begiraleen kontrataziorako deialdi eta oinarriak.

Izen-emate epea igarota eta hautagaiei zuzentze-eskaerak eginda, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratu behar dira eta horiekin batera merezimenduen behin-behineko emaitzak.

Proposamena: Oñatiko Udaleko 2025 urteko arte udalekuetako begiraleen behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak eta behin behineko merezimenduak (I. Eranskina) onartu eta argitaratzea eta bost eguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko.

Goiko txostenak dioena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, erabaki dut:

Lehenengoa.- Oñatiko Udaleko 2025 urteko arte udalekuetako begiraleen behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak eta behin behineko merezimenduak onartu eta argitaratzea.

Bigarrena.- Erreklamaziotarako bost egun baliodun ematea. Hain zuzen, 2025eko apirilaren 25era arteko epea.

Hirugarrena.- Erreklamazioetarako epea amaituta, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak eta merezimenduen behin betiko zerrendak argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen hau www.oñati.eus webgunean eta Udaleko iragarki taulan argitaratzea.



Honela jasota geradin eta bere ondorioak izan dizan hau sinatzen dut,

Oñatin,

Alkatea

Izaro Elorza Arregui

I.ERANSKINA

Onartutako izangaiak:

NAN	Hizkuntza eskakizuna dauka	BHBH merituak
***3309**	Bai	15
***7793**	Bai	14
***4348**	Bai	4
***8174**	Bai	3
***2684**	Bai	2,5
***5109**	Bai	2
***3217**	Bai	2
***7661**	Bai	2
***7746**	Bai	1
***4839**	Bai	0

Baztertutako izangaiak:

Ez dira egon.